

**MOTZAK TXANKAKUA ELKARTEAREN IV. FERIA BIHAR, HILAK 18, PLAZA HANDIAN
GEHIGARRIA KILIBARREN · KIROLA MINTXETAKO IGERILEKUEK 29.000 ERABILTZAILE IZAN DITUZTE**

BARREREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko irailaren 17a/XII. urtea/501. zkia



DOMINGA, M^a AGUSTINA ETA M^a KARMEN ARRIZABALAGA

Argentinar euskaldunak



Erantzuna Udal Euskaltegian
La respuesta en Udal Euskaltegiak

2004/2005eko EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza: EUSKALDUNTZE maila guztiak,
ALFABETATZEA, EGA.

Erritmoak: 2 ordu egunean, ordu eta erdi egunean.

Iraupena: Iraila-ekaina.

IKASTARO bereziak: GURASOAK, ENPRESAK, EGA ikastaroak (larunbatetan) MINTZAPRAKTIKA ikastaroak, HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK (Osakidetza, Administrazioa, Hezkuntza).

ORDENAGAILU GELA: HEZINET, ordenagailu bidezko programa osagarria.

Matrikula epea: Irailaren 1etik 24ra.

Beka sistema daukagu. Galde ezazu!

UDAL
EUSKALTEGIAK



www.udaleuskaltegiak.net

DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitatea

Nafarroa Eparantza 2 • 20870 ELGOIBAR • Tel./Faxa: 943 74 27 31 • elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

HIZKUNTZ

Alemana, Frantsesa, Ingelesa eta Italianoa

SOLUZIOAK

IRAILETIK HASITA 2004-2005 KURTSOKO IKASTAROAK

- Meila guztiak
- Titulu ofizialak
- Esperientzia duten jatorrizko irakasleak
- Talde murriztuak
- Ikastaroak atzerrian
- Multimedia gela

ENPRESA • ITZULPEN ETA INTERPRETazio ZERBITZUAK

- Esperientzia zabela duen lan taldea
 - Teknikoa (makina-erreminta)
 - Komertziala
 - Nazioarteko proiektuak
- Goi-teknologiaren erabilera
- Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa
- Prezio lehiakorrek



**INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES**

IMH
San Roke Auzoa, 1-P.K. 37
E-maila: ils@ils.es
Tel.943 744 040 Faxa: 943 741 654

MH ENDEKITA
MAIOLA
SERBITZUA
INSTITUTO
DE MAIOLA
PERMANENTE

**Talde bereziak dendari, etxekoandre, banku
eta udaletxeko langileei.... zuzenduak**



Ostegunetako azokaren inguruan

Ez nator bat Udalak ostegunetako azoka Sigmara eramateko hartu duen erabakiarekin.

Ostegunetan Plaza Handitik osteratxo bat egiteko ohitura daukat, eta giro polita egoten dela iruditzen zait: kafetxo bat hartu, erosketa batzuk egin. Merkataritza txikiak herriari bizia ematen dionaren ustekoa naiz: dirua bertan utzi, eta gainera elkar ikusteko aukera errazten du, gauza ederra eta aberasgarria da herriarentzat, eta horregatik, azokak herri erdian jarraitu behar duela iruditzen zait.

Trafiko arazoak ekiditeko aldatu nahi dutela lekuz? Arrazoi berdina eskuan hartuta aurreko alkateak OTA jartzeko proposamena luzatu zuen; ideia bikaina! Gure herriko alkateek arazoei irtenbidea bilatzeko modurik polemikoena bilatzeko ikastaro berezirik egin ote duten jakin nahiko nuke.

Hara, trafikoaren ustezko arazo horrek beste nolabaiteko konponbidea izango duelakoan nago, eta horrela ez bada ere, herriari azokak ematen diona eta herritarren iritzia horren gainetik daudela iruditzen zait. Gainera, herriak bizirik jarraituko badu, merkatalgune handiak erosleak berenganatzen ari diren une honetan, bertako merkataritxikien aldeko apustu garbia egitea inoiz baino garrantzitsuagoa dela iruditzen zait.

Lorea Perez de Albeniz



Segundoak egunak balira...

Batzuetan, egunak 24 ordu eduki beharrean, 48 ordu eduki beharko lituzkeela pentsatzen dot. Egunean zehar, ekintza batzuk egiteko espero baino denbora gehiago behar izaten dut eta eguna motzegia iruditzen zait. Planen bat aurrera eramanez nahi duzunean orduetegi bat egiten duzu dituzun ordu librean artean, baina gehienetan ez da betetzen. Eta hurrengo egunerako uzten duzu, baina beti dago zerbait egun horretan, une berean egin nahi duzuna, azkenean guztia egin ezinik aurkitzen zarelarik.

Gure denbora libre neurtzeak eta kontrolatzeak badarama lana, eta ez da lan makala den dena kontrolpean edukitzea. Honek pentsarazten didana egunak labur eta astea eta hilabeteak gero eta azkarrago pasatzen direla da. Azken finean, urte berria hasi zenetik irailean jarri gera, eta, nahiz eta denbora guzti horretan egin dudana guztiaren oroimenik ez eduki, bederatzi hilabete hauek ziztu bizian pasatu direnaren sentsazioa daukat.

Egun batzuetan segundoak luzatu egin beharko lirateke, eguna gehiago dastatzeko. Egiten ari garenak etekin bikoitza eduki dezan, bizitza honetan pasadan gaudenez, gutxienez bizitzen ari garena guztiz aho-gozateko.

Jokin Martinez

asteko notizia

Kexak	5
motZ MotZ	8
gehigarria	13
kiROLak	20
aGenda	24

Aial hauek ez dira BARRNen editoriak. Urtero 10 lagun inguru aukeratu dira eta txandak txandak idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, plurraltasuna izaten ditugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratu du.

MERKATU TXIKIA ETA ALKATETZA AUTORITARIOA

Einbiuko ordezkari bezala, pil-pilean dagoen gai bati buruz dugun iritzia luzatu nahi dizuegu, Merkadilloari buruz, alegia. Gure ustez, gai honek bi alde nagusi ditu: alde batetik, egiteko modua, eta bestetik, egingo dena. Gure alkatetza ez-legitimo honek, ez ditu formak ezta edukiak ere gorde. Formaren aldetik, erabaki hori hartzeko ez dute inorekin kontsultatu, ez dendarien ordezkariarekin, ez afektatuekin beraiekin, eta ez dute beste proposamenik kontuan hartu. Hau ere Udal honek funtzionatzeko berezko daukan "estiloan" egin dute: "orden y mando"; hau da, eskutitz bat bidali, azalpenik ere eman gabe, eta denak sigmara, jaietako zezentxoekin egin duten bezala, barrakekin egin zuten bezala... sin rechistar!

Egin dutena, ostera, -edukia-, inork ulertzen ez duen aldaketa da. Ikus bestela BARREN bera; bai dendariak, bai tabernariak, baita herritar gehienak ere erabakiaren kontra daude. Alde batetik, ostegunetan herria bizitu egiten delako, inguruetakoez eta bertakoez herri erdia betetzen dute; erosketak eta kontsumoa gehitzen da oro har, eta mugimendu hori da Elgoibarko alde zaharra pizteko modu bat, Plazatik Maalaraino halako gune komertzial osoa sortzen delarik. Sigmako inguru horrek -izatez oso urruti ez egon arren-, gune komertziala apurtu egiten du. Pertzepzioa da jokoz kanpo dagoela, eta kosta egingo dela bertara joatea. Eta bestetik, sarreran bertan eskailerak daudelako, eta karritoezin, edo elbarrituak, e.a. ibiltzeko ez da eroso. Arrazoi gehiago ere badaude, zentzuzkoak, BARREN irakurri baduzue ohartuko zineten bezala.

Beraz, Einbiouren iritzia da, alde biak kontuan hartuz, Alkatetza ez-legitimo honek egindakoa, kazikada bat dela eta, gainera, erdiko gunearentzat, alde zahararentzat kaltegarria izan daitekeen erabakia dela. Bestalde, arrazoa trafikoa arazoa baldin bada, esan dakiok, Elgoibarren daukagun arazo orokor hori beste modu sakonago baten konpondu beharko dela, -Einbiouk noizbait eman ditu ideiak, baina ez digute jaramonik egin, oraingoz-. Zergatik ez dugu denon artean, -afektatuak, dendariak, herritarrek-, honi buruz hitz egiten? Zergatik ez du Udalak beste proposamenik onartzen? -esaterako Plaza Txikian koka daiteke, e.a.- Zer irabazten du alkatetzak, hain hertsiki jokatuaz? Hain erraz ikasten da, urtebetean, prepotentea izaten?

Iñaki Odriozola Sustaeta eta Iñaki Bengoetxea Ansola
Einbiou

AURREKONTUEKIN AURRETIK KONTUZ

Kontu handiz aztertu nahi genuke aurrekontuen onarpenerako prozesua, Mendaroko udaletxean egingo dugun proposamena prozesua abiarazteko bi puntuotan laburbilduz:

1) Aurrekontuen %0,7a gutxienez (portzentaje handiagoak adosteko) hirugarren munduko herrien garapenerako bideratzea, diru honen kudeaketaren baldintzek eta moduek inolaz ezin dezaketelarik atzerapenik jasan beraiek adosteko alferkeriagatik.

2) Gainerako diruaren banaketa, lehenasunei edo atalei (kultura, euskara, hirigintza...) dagokienean, modu partehartzaile batetan burutzeko mekanismoak sortzea, udal funtzionarioen bat mekanismo honen koordinaketan lanean ipiniz eta prozesurako herri xeheari borondatea eskatuz eta bidea argituz.

Mendaroko Auzolanian Herri Plataforma

Urruzunoren begi ezkutua

Etorkinen balada



Gaueko hego-haize epelaren babesean gizon pare bat kalean behera doa. Poltsa bana eskuetan hartuta, beraien kontuetaz solasean doaz beraien hizkuntzan.

-Gaur gutuna jaso diat, denak ondo zaudek etxean.

-Nik hilabete honetan ez diat telefonoz hitz egin hangoekin.

Gizon pare txakur baten aldamentetik igaro da. Bat-batean txakurra zaunkaka hasi da bien aurka. Berehala, txakurraren jabea hurreratu da, animaliarri errieta egin eta lepokotik gogor helduta berarekin eraman du.

-Hego-haize honekin, gero eta guttiago somatzen diat faltan etxea -berrekin dio solasari batek.

-Niri berdin gertatzen zaidak. Gero eta gehiago sentitzen diat Euskal Herria dela nire etxea -erantzun dio besteak. Bi gizonek kalean behera oinez ibiltzen jarraitu dute gau ilunean.

Jon Eugi

ASTEKARIA

BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIA Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ZUZENTZAILEA Unai Villena KOLABORATZAILERAK Esther Gurrutxaga, Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Eduñe Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.175 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

 Elgoibarko Udalak, Euzko Jaurilaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.







◆ **Plaza Txikiko bizilagun batek azaldu digunez, feria egunetan ezin omen da bertan bizi:** “Feria egunetan Plaza Txikian egoten den zarata, zikinkeria eta usainak jasanezinak dira. Higiene falta izugarria egoten da, eta egun horietan ganadu korta batean bizi garena dirudi. Ez gaude feriaren kontra, baina lekuz aldatzea gustatuko litzaiguke”.



◆ **Herritar talde bat etorri zaigu, ostegunetako azoka Plaza Handian mantendu behar dela defendatuz:** “Azokak herri erdian egon behar du, denon eskura. Jende nagusi asko ibiltzen da azokan, eta Sigma oso urruti gelditzen da. Alkateak herriaren ahotsa entzun beharko luke, herritarrek ez dute nahi azoka lekuz aldatzerik. Sinadura asko bildu dira, eta mesedez eskatzen diogu, erabakia ondo pentsatu dezala”.



◆ **Herritar batek San Bartolome jaietan Gune Askea antolatu zutenak txalotu nahi ditu:** “Txalo zaparradia, Elgoibarko jaixetan, kulunpio eta txirristadarik ez daukan parkian, Gune Askia antolatu eta prestau zenutenei. Mundiala izan zan Blues kontzertua; Txiki Eguneko erromerixiak in lortutako girua; Gazteen Eguneko bazkarixa, malabaristia, bertso poteua eta gaueko kontzertu markinarrak... Jaiak herritik eta herriarentzat! Biba zuek!”

◆ **Hainbat herritarrek Kirol Patronatua txalotu nahi dute, herriko kirol instalazioetan egin dituzten berrikuntzengatik:** “Olaizaga Kiroldedia eta Ikastolako frontoia berriitu egin dituzte. Egoera kaxkarrean zeuden, eta bazen apur bat konpontzeko garaia. Poliki bada ere, gauzak hobetuz doaz, beraz, jarraitu horrela”.



◆ **Herritar batek esan digunez, Pedro Muguruza Etorbidean, Toletxeko aldapan, egunero autoak aparkatuta egoten dira oinezkoei pasatzeko lekua kentzen:** “umeen autoarekin edo erosketetako karroarekin ezin da bertatik pasatu. Lehen autorik ez pasatzeko piboteak zeuden, baina apurtu egin zituzten eta momentuz, ez dira berriro ere jarri. Auzokoren batek larrialdi bat izanez gero, eta gertatu izan da, anbulantzia batek ezin du aldapa gora igo, eta gaixoa ohatila batean eraman behar izaten dute beheraino. Ez dago eskubiderik. Eskertuko nuke arazo honi irtenbidea topatuko balitzaio, piboteak berriro jarri izan edo isunak ipiniz”.

◆ **Gazte talde batek esan digunez, Elgoibarren bide gorriak behar dira:** “Jende askok dauka bizikletan ibiltzeko ohitura, eta Elgoibarren ezin da bizikletan lasai ibili. Bide gorriak behar dira, bai herri barruan, eta errepidean ere bai. Beste herri batzuetan ere hasi dira jartzen, eta hemen ere jarri beharko lirateke”.



◆ **C.D. Elgoibar taldeko bazkide batek Haundi taldea txalotu nahi du,** joan zen zapatuan Eibarko Unbe futbol zelaian Gasteizko Aurrera taldearen aurka egindako partidugatik: “Joko ikusgarria erakutsi zuten, batez ere, lehenengo zatian. Ia denboraldi guztian maila bera mantentzen duzuen. Jarraitu horrela, mutilak!”.

Argentina erraietan, Euskal Herria bihotzean eta euskara ahoan

Dominga, Maria Karmen eta Maria Agustina Arrillagaren jatorria Euskal Herrian dago, Elgoibarko San Pedro Bailaran, hain zuzen ere, baina hiruretako inor ez da sekula Euskal Herrian bizi izan. Dominga eta Maria Agustina Arrizabalaga ahizpen aita San Pedro bailarako Kortaso baserrian sortutakoa zen eta ama, berriz, Usatorre baserrian sortutakoa. Maria Karmen Arrillagaren (aurreko bien lehengusina) aita ere Kortasokoa zen eta ama ostera, San Pedro bailarako Arraitza baserrikoa zen jatorriz. Hiru emakumeok argentinarrak dira: gaztelaraz berba egiterakoan azentu bereizgarriak salatzen ditu, eta hau gutxi balitz, hitzordua geneukan tokira ailegatu ginenean matea edaten aurkitu genituen, ohitura ezin argentinarragoa. Dena dela, harrigarria, euskaraz berba egiten dutela da, euskara jator eta ederra, kasu honetan inolako argentinarrak azenturik gabea.

Dominga San Lorentzo hirian bizi da, Maria Agustina Entrerriosen eta Maria Karmen, berriz, Tostado hiritik 80 kilometrora bizi da. Uztaila eta abuztuaren artean hilabete pasatxo egin zutela aprobetxatuta, hiru emakume dotore hauekin egin ginen. Argentinaren artean egonik, solasaldi luzea eta entretenigarria izan zen. Hona berba egindakoaren zatitxo bat.

Beti euskaraz

Amarekin eta aitarekin beti aritzen zirela euskaraz aipatu digute. “Sehaskatik bertatik ikasi genuen euskaraz berba egiten eta bi hizkuntzak, euskara eta gaztelera, aldi berean ikasi genituen. Senitartekoez gain, kolonia euskaldun zabalaz inguraturik geunden eta euskaraz berba egiteko aukera dezente genuen. Bizi ginen lekuan guztiak ziren etorkinak. Gipuzkoar, bizkaitar eta nafar mordoa zegoen, besteak beste. Denak aritzen ziren letxerian edo “tanbo”an. Gainera, Rosario euskal etxe oso onak zeuden. Dantzan egitera joaten ginen eta senargaiak ere bertan lortzen genituen. Aukera zabala geneukan, Euskal Herritik joandako mutil gazte mordoa baitzegoen garai hartan. Nahi izanez gero, erreza zen senargai aurkitzea”. Hirurak ezkondu ziren mutil euskaldunekin, eta hirurak bizkaitarrak.

Seme-alabei ere euskaraz erakutsi dietela azaldu digu Maria Agustinak, “bizkaitarrez berba egiten dute gainera”. Ederki bereizten zituzten aitaren eta amaren euskalkiak: “amatxok esaten dau sukaldian eta aitxak esaten dau eskaratza”. Domingak gogoan du semearekin Euskal Herria egin zuen bidaia “semeak 18 urte zituenean etorri ginen eta berak euskaraz berba egiten zuen bitartean, adin bereko bertako mutilek euskaraz ez berba egiteak asko harritu zuen. Niri ere pena ematen zidan euskara galduko zela ikusten bainuen. Seme guztiak Argentinan bizi dira, baina ez diote euskara pasa familiako hurrengo belaunaldiari, gure ilobei, alegia. Batez ere beste jatorri batzuetako emazte/senarrak topatu dituztelako”.



Zirrara berezia

Maria Agustina eta Dominga behin baino gehiagotan egon dira Euskal Herrian. Lehena 1948an etorri zen estreinako eta 10 hilabete igaro zituen hemen, “gerra ostea zen eta ezin daiteke gaur egungo egoerarekin alderatu. Garai hartan esaterako, Argentina askoz oparagoa zen. Dominga, berriz, 1970. urtean etorri zen lehen aldiz eta gurasoak jaio zireneko etxea ezagutzeak zirrara berezia sorrarazi ziola gogoan du. Maria Karmenentzat, ostera, etortzen den lehen aldia da. Ilusio eta gogo handia zuen etortzeko, “gurasoak sehaskan

GUSARROAK



1912an iritsi zen Salvador Arrillaga, Domingaren eta Maria Karmenen aita, Argentinara 16 urte besterik ez zituela. Aurrez joan zen osaba mutilzahar batek hartu zuen bere etxean Rosarion. Titanic hondoratu eta gutxira zeharkatu zuen Atlantikoa Salvadorrek. Domingak gogoeta egiten du: "Horrelako itsasontzi erraldoia hondoratu bazen bereak ere patu bera izan zezakeen beldurrez joango zen ziurrenik". Geroxeago, bere anaia Jose (Maria Agustinarene aita) iritsi zen Argentinara. Bidea ireki zuten hauek eta gainontzeko anaiek ere emigratzea erabaki zuten. Agustin, Julian eta Juan Bautistak potzua zeharkatu zutenean Kortaso baserrian sortutako 5 anaia elkartu ziren Argentinan. 11 anai-arreba ziren guztira eta mutil bakarra, Mondaran, eta bost neskak geratu ziren Euskal Herrian. Argentinara Abeltzantzan lan egitera joan ziren, esne behiekin, hain zuzen ere. Ehunka behi jaisten zituzten. Argentinan "tanbo" deitzen zaio lanbide honi.

Maria Agustinak azaldu digunez, 14 urte egin zituen bere aitak Argentinan lanean jaioterrira itzuli aurretik "Nire aita Salvador 1924. urtean, 29 urte zituelarik itzuli zen berriz Euskal Herrira. Asmo zehatz batekin itzuli zen: euskal andregaiak topatu nahi zuen. Usatorre baserriko alabarekin (nire ama) ezkondu eta berriz joan zen Argentina aldera. Aitak 10 urteren buruan itzultzeko moduan izango zirela aipatzen zuela esaten zuen amak, baina denborarekin lotura gehiago sortu zitzaizkien eta gainera, Guda Zibila hasi zen hemen". Maria Karmenek bere aitak ere berdin jokatu zuela gaineratzen du, "Euskal Herrira itzuli eta emakume euskaldun bat aukeratu zuen harantz eramateko". Dirudienez argi zuten Arrillagatarrek nongo emazteak nahi zituzten. Anaia bakarra ezkondu zen Argentinan, baina hura ere Tolosako emakume batekin. Beste bi anaia ezkongabe geratu ziren.

nengoenetik hasi baitzitzaizkidan hemengo berri ematen. Gaurko Euskal Herriak ez du zerikusirik gurasoek kontatzen zidatenarekin, eta niri duela 70 urte kontatzen zidaten Euskal Herria ezagutzea gustatuko litzaidake, baina badakit ezinezkoa dela. Dena modernizatu da, edozein lekura iritsi daiteke errepidez, jadanik ez daude eurek kontatzen zizkidaten bidexkak". Domingak argi dauka, "Ezin daiteke guk aurreratzea eta besteak bere horretan geratuko zirenik uste. Euskaldunen langile fama ez da alferrikakoa eta lan asko egin dute". Telebistaren bitartez hemen gertatzen den guztiaren jakitun dira, "Espainiako berri asko botatzen dituzte telebistaz. Gainera, interes berezia jartzen dugu Euskal Herriko

kontuetan, hemen jaiok izango bagina moduan sentitzen baitugu herri hau".

Euskaldunen ospe ona

Euskal komunitatea zabala eta garrantzitsua da oraindik Argentinan eta oso maitatuak eta errespetatuak dira. Euskaldunak ezagunak dira emandako hitza betetzen dutelako. Espainiar guztiak "gallego" gisa ezagutzen dituzte, baina euskaldunak "vascos" dira, iraindu nahi badituzte bakarrik deitzen diete "gallegos". Esaera bat ere badago, "vascos si, si. El gallego: no se". Euskal Etxeak hiri eta herri askotan daude: Buenos Aires, Rosario, Mar del Plata, Tambil, Pergamino, etab.

Udalak eta azokako merkatariak ez dute akordiorik lortu

Azoka Sigmara aldatzeko erabakia herritar guztion hoberako hartu duela dio Udalak

Joan zen hilaren 9an bildu ziren azokako merkatariak Marivi Agirregomezkorta alkatearekin, baina ez zuten akordiorik lortu.

Udaletxetik jakinarazi dutenez, herrian sortzen diren trafiko arazoak konpontzeko hartu dute erabakia. Azokako merkatariak, ordea, arrazoi hori aitzakia bat besterik ez dela diote: "Orain arte ez digute arrazoirik eman, eta zerbait esan behar zuten, trafiko arazoa jarri dute aitzakia modura. Udalak borondate apur bat izango balu, trafiko arazoa konpontzeko beste moduren bat bilatuko luke".



Herritar ugari bildu ziren azokaren leku aldaketaren kontrako manifestaldian.

Herritarren babesa

Azokako merkatariak 1.500 sinadura inguru bildu dituzte azokaren leku aldaketaren kontra: "Argi eta garbi esan digute herritarrek Sigmara ez direla joango, azoka Plaza Handian nahi dutela erakutsi digute, eta eskerrak eman nahi dizkiegu". Honekin batera, Txankakua Elkarteak merkatariak ere azoka Plaza Handian mantentzearen alde agertu dira.

Udalaren arrazoiak

Azoka Sigmara aldatzearen erabakiak sortu duen gatazka dela-eta, Udalak bere

arrazoiak zeintzuk izan diren azaldu du idatzi baten bitartez, eta hausnarketa handia egin ostean hartutako erabakia izan dela baieztatu du. Beraiek erabaki zuzena hartu dutelakoan daude, eta guztion onurarako izango dela espero dute.

- Toki berria Plazatik 300 metrora dago, eta bidea laua da.
- Plaza Handiak baino 500 metro karratu gehiago ditu.
- Inguruetan autobus geltoki desberdinak daude.

- Bertara sartzeko bi bide daude: eskailerak edo aldapa. Elbarrituek ere ez dute arazorik izango.
- Inguruan era guztietako zerbitzuak daude, kafetegiak, supermerkatuak, aparkalekuak...
- Zamalanak errazago egingo dituzte toki handiagoa delako.
- Herrian dauden trafiko arazoak gutxituko dira.
- Plaza Handian pasiatzen dutenek ez dute ostegunetan oztoporik izango.

Txankakua Merkatari Elkartearen IV. feria izango da Plaza Handian bihar, irailak 18



Elgoibarko merkatariak kalera aterako dira, bihar, irailak 18. Goizeko 11:00etan hasi eta eguerdiko 13:30ak arte, Txankakua Merkatari Elkartearen jaialdia izango da Plaza Handian. Herritarrek elkarteak merkatarien produktuak ikusi edo erosteko aukera izango dute bertan.

Honetaz gain, beste hainbat ekitaldik osatzen dute feria honetako egitaraua: besteak beste, haurrentzako parkeak, txutxu trenak, Txankakuaren VISA txartelaren

aurkezpena eta Gorritiren animalien ikuskizuna izango dira.

300 euro saritan

Eguerdiko 13:30ean 60 euroko 5 sari zozketatuko dira. Irailaren 13 eta 18 bitartean Txankakua elkarteak edozein dendatan eta Plaza Handiko ferian erosten dutenek, zozketan parte hartzeko boletoak jasoko dituzte. Saria eskuratzeko, boleto sarituak Plaza Handian egon beharko du zozketa egiten den momentuan.

Arregitorreko Babes Ofizialeko Etxeak uztailean zozketatu ziren

Arregitorreko Babes Ofizialeko etxeen inguruan galdera ugari etorri zaizkigu **BARREN**-era. Jendeak informazio falta nabari zuen, eta hori argitzeko Marivi Agirregomezkortarekin hitz egin genuen joan zen astean. Berak azaldu digu nola egin zen etxe hauen zozketa, eta bide batez, gauzak modu zuzenean egin direla argitu nahi du: “Lehenago legearen arabera, Promozio Pribatuko etxeak dira hauek, eta enpresa eraikitzaileak 10 etxeri jabea esleitzeko aukera zeukan, zozketa eginez, edo ez. Beti ere, Etxebide-ko zerrendak errespetatuz. Guk ez geneukan inolako interes berezirik, etxe horiek esleitzeko eskatu genuen baldintza bakarra Elgoibarren bost urtez enpadronatuta egotea izan zen, etxe horiek herriko



jendearentzat izan zitezten. Gainontzeko etxeak notario aurrean zozketatu ziren. Zozketa pribatua zen arren, gaizkiulerturik ez egoteko Udaletxeko zinegotzi guztiei luzatu nien zozketan egoteko aukera, eta PPkoak izan ezik, alderdi guztietako ordezkariak joan ginen. Zozketa modu garbian egin zen”.

Eusko Tren enpresak neguko ordutegia jarri du martxan

Eusko Trenek neguko autobus zerbitzua jarri zuen martxan irailaren 13an. Debarrenari dagokionean, 31 joan etorri egingo ditu autobusak astegunetan Mallabia-Ondarru-Itziar linean eta asteburuetan 17.

Iaz martxan jarri zen Elgoibar barneko autobusak 6 joanaldi egingo ditu Sigmatic Arriagara, eta 5 kontrako norabidean. Goizeko 6:00etan jartzen da martxan, eta 7 geldiuene egiten ditu: Arriaga, San Pedro, hiltegia, Mupem, Osasun Zentroa, Santa Ana eta hilerria. Kontrako norabidean Madala eta Artetxe auzoan ere gelditzen da.



Larunbat gauetan Eibartik Saturraraneraino 4 zerbitzu izango dira. Gauko 12:00etatik goizaleko 6:00ak arte.

Informazio gehiago www.euskotren.es web gunean edo 902 54 32 10 telefonoan.

IMHko Heziketa Zikloetako matrikulazioak gora egin du



256 ikasle berri matrikulatu dira 2004-2005 ikasturterako IMHko zikloetan, iaz baino 12 ikasle gehiago. Goi Mailako Zikloetan 196 ikaslek eman dute izena eta Erdi Mailakoetan 60 ikasle matrikulatu dira. Goi Mailako Zikloetan proiektu mekanikoen garapena, mekanizazio bidezko produkzioa eta industri ekipoen mantenua eskaintzen dira eta Erdi Mailako Zikloetan mekanizazioa eta makineria, eta linea eroanbideen instalazio eta mantenu elektromekanikoa. Hilaren 10ean egin zen zikloen aurkezpena, eta hilaren 13an hasi ziren eskolak.

Debarrenako Esperientziaren Eskola martxan urritik aurrera

Eskualdeko 50 urtetik gorako pertsona langabetuei zuzenduta, Esperientziaren Eskola egitasmoa jarriko da martxan datorren urriaren 19tik aurrera. Proiektuaren helburuetako bat elkartruckerako gune ireki bat sortzea da, Debarrenako pertsona nagusiak hezitzeko eta beraien esperientziak elkartruka ditzaten, horrela, eskualdeko nagusien Kontseilu bat sortu ahal izateko.

Ikastaro honetan “Erlaxazioa”, “Erlazio Sozialak”, “Debarrenako Kultura eta Tradizioak”, “Filosofia”, “Literatura”, “Artearen Historia”, “Zuzenbidea” eta “Psikologia” bezalako ikasgaiak eskainiko dira. Bestalde, Esperientziaren Eskolak beste ekintza osagarri batzuk ere eskeiniko ditu, hauen artean hitzaldiak, beste eskolekin elkartrukeak, jardunaldiak, irteerak eta ikustaldi kulturalak bereizten direlarik.

Proiektu honetan matrikulatzeko epea urriaren 8an bukatuko da eta inprimakiak Debarrenako udaletxeetan eskuratu daitezke. Informazio gehiagorako 943 820110 telefonora deitu (Idoia Uribarri).

Gestio ikastaroak Debarrenako enpresentzat

Debegesak beraien enpresa gestioa profesionalizatu nahi duten enpresei zuzendutako ikastaroak jarriko ditu martxan. 30 ikastaro desberdin izango dira guztira eta besteak beste, finantza arloa, merkataritza, nazioarteko merkataritza eta kalitatearen gaiak landuko dira.

Informazio gehiago lortzeko 943 820110 telefonora deitu daiteke (Isabel Aldazabal).

Ostegunetako merkatua lekuz aldatzeko erabakiak soka luzea ekarri du herrian UDALAK ATZERA EGIN BEHARKO AL LUKE HARTUTAKO ERABAKIAN?



SABINA BERGARETXE
81 urte, etxekoandrea

Bai, berriz pentsau beharko luke. Azokia Plaza Haundixan ondo zauala iruditzen jata, jendia Sigmara baino errazago jungo da. Ez dakit zelan hartu daben erabakixa, baina jendiakin kontsultatu beharko lukete.

JUAN CARLOS TABIRA
33 urte, langabetua

Bai, atzera bota beharko luke. Azokan buelta bat eman nahi duenak, eskura eduki behar du. Sigmara ez da inor joango erostera, eta saltzaileentzat ere okerragoa da. Azkenaldian ez dute erabaki zuzenik hartu.



ENKARNI MIGALES
36 urte, ile apaintzailea

Bai, erabaki honekin ez dute asmatu. Beste tokiren batera eraman beharko lukete, Sigmara ez da inor joango, herriak eman du bere erantzuna. Trafiko arazoa konpontzeko beste irtenbideren bat bilatu behar da.

KARMELE LARRAÑAGA
69 urte, etxekoandrea

Bai, dudarik gabe. Oso gaizki begitantzen jata azoka Sigmara eramatea, oso urruti geratzen da. Trafiko arazoa ez da arrazoi nahikoa, gainontzeko egunetan baino arazo handiagorik ez da izaten ostegunetan.



ALBERTO CID
35 urte, errektifikatzailea

Bai. Herriaren erantzuna argia izan da, eta beraien ahotsa entzun beharko luke. Nire ustez trafiko arazoa baino zerbait gehiago dago erabaki honen atzean, beste interesen bat egongo da.

ANA ETXANIZ
19 urte, ikaslea

Bai, hobeto pentsatu beharko luke. Erabakia hartzerakoan ez du herria kontuan hartu. Nire ustez azokak Sigman ez du funtzionatuko, herriaren zentroan egon behar da. Trafiko arazoa ez da arrazoi nahikoa.



Tel: 943 74 10 11

- ⊕ IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ⊕ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- ⊕ IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

IKASTOLA

Haur Hezkuntza	ikasleak
2 urte	54
3 urte	46
4 urte	50
5 urte	28
Lehen Hezkuntza	ikasleak
1. maila	43
2. maila	45
3. maila	29
4. maila	35
5. maila	27
6. maila	35
Bigarren Hezkuntza	ikasleak
DBH 1	35
DBH 2	40
DBH 3	33
DBH 4	37
guztira	537

1.182 ikasle matrikulatu dira aurten DBHra arteko mailetan

laz baino 38 ikasle gehiago matrikulatu dira aurten Elgoibarko ikastetxeetan



Elgoibarko ikastetxeek hasi dute dagoeneko, 2003-2004 ikasturtea. Aurtengoan, 1.182 ikasle eman dute izena DBHra arteko mailetan, hau da, iaz baino 38 gehiago. Ikastolak eta Herri Eskolak gora egin dute beraien matrikulazio kopuruan, baina Pilar Ikastetxean iaz baino 65 ikasle gutxiagok eman dute izena. Ondorengo tauletan jaso ditugu ikastetxe desberdinetako datuak.


INSTITUTUA-HERRI ESKOLA

Haur Hezkuntza	ikasleak
2 urte	30
3 urte	34
4 urte	45
5 urte	47
Lehen Hezkuntza	ikasleak
1. maila	36
2. maila	23
3. maila	28
4. maila	27
5. maila	25
6. maila	15
Bigarren Hezkuntza	ikasleak
DBH 1	46
DBH 2	36
DBH 3	36
DBH 4	28
Laguntza gela	6
guztira	462

PILAR

Haur Hezkuntza	ikasleak
2 urte	-
3 urte	6
4 urte	5
5 urte	2
Lehen Hezkuntza	ikasleak
1. maila	12
2. maila	8
3. maila	18
4. maila	14
5. maila	15
6. maila	14
Bigarren Hezkuntza	ikasleak
DBH 1	24
DBH 2	17
DBH 3	26
DBH 4	22
guztira	183





2001. urteko argazki honetan Albitxuriko ingurunea azaltzen zaigu. Urte asko pasatu ez diren arren, paraje hau oso desberdina zen duela hiru urte. Argazki honetan obretarako lan-tresnak ikus ditzakegu: eskabadorak, kamioiak eta langileek jantziak aldatzeko etxetxoak, besteak beste.

Betidanik mendi zonaldea izan da Albitxuri. Garai batean zabortegia zegoen bertan, eta jende asko joaten zen traste zaharren baten bila. Honetaz gain, ehiztari ugari biltzen ziren hemen txori txikiak harrapatzeko. Argazkian ikusten den bezala, paraje honetan ez zegoen ezer, hutsik zegoen, dena mendia zen. Urte gutxiaren baitan, obra handiak egin dira Albitxurin.

2004. urteko argazki honetan ikusten den bezala, Albitxuriko ingurunea erabat aldatu da. Industriegune berri eta garrantzitsua sortu da Albitxurin. Bertara joateko errepide berriak egin dituzte, eta herriko eta kanpoko enpresa ugari kokatu dira bertan.

Mendi hutsa izatetik, Albitxuriko Industriegune izatera pasatu da ingurune hau. Mugimendu handiko industriegunea da gainera. Bestalde, jende ugari joaten da bertara pasiatzera. Eguzkiak ederki jotzen duen parajea da, eta herritarrak oso gustura egoten dira bertan.

Oraindik ere lur sail handiak daude libre Albitxurin, eta aurrerantzean ere ziur zerbait eraikiko dutela.

Juanito Gorostiza



ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

Kili BARREN

Umeentzako Mugikortasunaren Festa izango da bihar, irailak 18

Irailaren 16tik 22ra bitartean ospatuko da

Debegesak Mugikortasun Iraunkorraren Aste Europarra antolatu du, 'Bizi kalitate hobegoko herri eta hirien alde' leloaren azpian. Ekimen hau osatzen duten ekintzak irailaren 16tik 22ra ospatuko dira eskualdeko hainbat herritan.

Mugikortasunaren Astea Mendaron hasiko da bihar, irailak 18, 9:30etik 13:30era ospatuko den umeentzako jaialdiarekin. Bi zatitan egongo da banatuta Mugikortasunaren Festa hau: alde batetik, 'Taldekako lana' izeneko atala egongo da, margo tailerrekin, puzzleekin, garraio publikoari buruzko marrazkiekin... Bestalde, 'Garraio publikoaren alde' izeneko alorra egongo da, bertan, jokoak, pottokak, txu-txu trenna, patinen tailerra, txirrindularitza zirkuitoa, globo aerostatikoa, zangaluzeak eta puzgarriak egongo direlarik.

Erakunde antolatzaileak autobus ipiniko ditu eskualdeko herrietan jai honetara joateko, 18 urtetik beherakoek arduradun batekin joan beharko dutelarik. **Gainontzeko ekitaldiak**



Mugikortasunaren Astearen baitan, Mallabitik Mutrikuraino ibilaldi ziklista egingo da irailaren 26an. Bestalde, garraio publikoari buruzko kanpaina bat antolatu dute eta ekimen desberdinak izango dira: hauen artean bereziana, garraio publikoko txartelen truke, hondartzako eskuoihalen banaketa izango da. Eskuoihala lortzeko, irailaren 21ean eta 22an erabilitako garraio publikoko txartelak gorde eta irailaren 26an beraien herriko enparantzaren trukatatu ahal izango dituzte.

Europar Batasunak Garrantzia Komunitarioko Toki bezala izendatu du Arno mendia



Mendaro eta Mutriku artean dagon Arno Mendia Garrantzia Komunitarioa duen toki bezala izendatu du Europar Batasunak. Paisaia, animalia eta landaretza aldetik oso aberatsa da Arno mendia, eta mendizale asko erakartzen du, ibilbide ederrak egiteko aukera eskaintzen duelako inguruko herrietatik abiatuta. Artadiak eta pinu sail batzuek estaltzen dute mendi gehiena. 628 metroko altuera daukan mendi hau artadiak eta pinu sail batzuek estaltzen dute, eta zaindu beharreko azalera 1.200 hektareako neurria dauka.

AEKn matrikulatzeko epea zabalik

Mendaroko AEK euskaltegian izena emateko epea irailaren 24an itxiko da. Klaseak urritik ekainera bitartean eskainiko dira. Langabetuek, gurasoek eta ikasleek matrikularen erdia ordainduko dute. Bestalde, ikasle guztiei beka sistema aplikatuko zaie. Ondorengo baldintzak betetzen dituenari matrikularen %75a itzuliko zaio: %90eko asistentzia, ikastaroa amaitzea, Mendarokoa izatea eta ebaluazio frogak egitea. Informazio gehiago Mendaroko Udaleko Euskara Zerbitzuan (943 03 32 82).

Zatzu Mendin Ehiza Xeheko Txapelketa

Kilimon Zahar Ehiza eta Arrantza Elkartek antolatuta, Ehiza Xeheko IX. Txapelketa ospatuko da Zatzu Mendin, bihar hilak 18, 9:00etatik 12:00etara. Txapelketa bi kategoria bereiztuko dira: Senior maila (bertan parte hartu nahi dutenek 16 euro ordaindu beharko dituzte) eta juvenil maila (8 euro). Partehartzaile guztiek bazkide txartela, ehizarako lizentzia, federatutako lizentzia eta aseguruua eduki beharko dituzte.

Herriko Enparantzaren trafikoa moztuko dute asteburuetan

Mendaroko Udalak Herriko Enparantzaren trafikoa mozteko erabaki du asteburuetan. Herritarren eskariei erantzunez, ostiral arratsaldetik astelehen goizera arte Enparantzara ibilgailuentzako itxita egongo da. Gaur, hilak 17, arratsaldeko 15:00etan itxiko dute, eta astelehen goizeko 8:00etan irekiko dute.



Kilibarren

Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

GRAFFITI

Sonia Perez TOPAGUNEKO

"Graffitiak marrazteko"



Topaguneak (Euskara Elkarten Federazioa) antolatuta, Euskal Herriko I. Graffiti Lehiaketaren finala, ospatuko da Mendaron datorren urriaren 2an. Goizeko 10:00etan hasita, lehiaketan parte hartu duten hamar graffiti onenak hormara eramango dira. Mendaroko txoko desberdinetan hormak zuritu eta prestatu dira horretarako, eta arratsaldeko 17:00etan sariak banatuko dira. Lanak aurkezteko epea irailaren 25ean bukatzen da, beraz, interesatuek oraindik badaukate parte hartzeko aukera.

Gaurkoan, Sonia Perez, graffiti lehiaketako antolatzailearekin hitz egin dugu, eta berak kontatu dizkigu lehiaketaren nondik norako guztiak. Hala ere, informazio gehiago nahi izanez gero, www.topagunea.com web gunea bisitatu, edota 94 621 51 16 telefonora deitu daiteke.

Nola sortu zen graffiti lehiaketa antolatzeko ideia?

Topaguneak "asteburueta.com" gazte programa jarri zuen martxan iaz. Honen barnean Gazte Kultur Zirkuitoak deitzen den programa bat dago, asteburueterako gazteen gustuko tailer eta ikastaroak eskaintzen dituenena. Azken honetan Graffiti tailerra izan da arrakastatsuenetakoa. Hortik aurrera konturatu ginen herri guztietan dagoela, nahiz eta modu masiboan ez izan, graffitiarekiko zaletasuna eta adierazpen artistiko honen inguruan kultura oso bat mugitzen dela. Hauxe izan zen ideiarene oinarria, hizkuntzaren erabilera bultzatzeko gazteak

gustuko dituzten gauzeekin motibatu behar dira, eta beste kultura batzuetatik datozen joerak gure kultura eta hizkuntzarekin uztartu behar ditugu.

Zergatik Mendaron?

Euskal Herri mailako I. Graffiti Lehiaketa da, eta partehartzaileak zazpi probintzietakoak izan daitezke. Ondoren, partehartzaileen obra bozetoak paretara eramateko hainbat baldintza beteko zituen herri edo hiria behar genuen. Euskal Herriko udal guztiei zabaldu zitzaizkien egitasmoaren nondik norakoak, eta baldintzak. Udal bat baino gehiagotik etorri zen parte hartzeko interesa. Mendaroko Udalak baldintzak betetzen zituen eta oso toki interesgarria iruditu zitzaigun.

"Guztira Mendaroko txoko desberdinetako 12 horma margotuko dira"

Herriko zein zonaldeetan margotuko dituzte graffitiak?

Guztira 12 paretan margotuko dira: hamar paretetan hamar finalistak elkar lehiari arituko dira. Beste paretan batean graffiti tailerra burutuko da eta azkenik, frontoiko fatxadan andamio eta guzti, erakusketan bat antolatuko da. Erakusketan hau, estatuan mailan esanguratsuak diren graffiti egileek burutuko dute: Okuda, SLK, Isra, Dibo...

Zein da lehiaketa honen helburua?

Lehiaketaren helburua, berezko izaera sortzailea sustatzea da. Beraien ekoizpen artistikoak sustatuz eta gizarteratuz.

Zein dira lehiaketan parte hartu ahal izateko baldintza nagusiak?

Lehiaketaren oinarriak Topagunearen web orrian aurki daitezke (www.topagunea.org), baina oso sinpleak dira. Hamabost urtetik gorako gazte euskaldunek parte hartu ahal izango dute, taldeka nahiz banaka. Final egunean partehartzaile bakoitzari beharrezkoa izango duen oinarriko materiala eskainiko zaio.

Zein teknika erabili beharko dute partehartzaileak?

Teknika librea izango dute.



LEHIAKETA MENDARON

GAZTE SAILEKO TEKNIKARIA

"toki oso interesgarria da Mendaro"



Zein izango da graffitiak marrazteko erabiliko duten gaia?

Gaia "euskara" izango da. Gaia oso zabala da, bakoitzak zabaltasun hori bere nahi eta sentimenduen arabera muga dezan, oso baldintzatua sentitu barik.

"Lehiaketaren helburua partaideen berezko izaera sortzailea sustatzea da"

Zein sari banatuko dira?

1.200 euroko lau sari banatuko dira. Graffiti original eta freskoenari, gaia hobetoen islatu duenari, teknikaren erabilpen egokienari, eta koloreen erabilpen onenari. Sari interesgarriak dira ezta?

Zeren arabera emango dira sariak?

Epaimahai moduan, gaian adituak diren pertsonak arituko dira, Euskal Herrikoak nahiz estatukoak. Azken iritzia haien esku egongo da. Baina irizpide nagusiak teknikaren erabilpena, koloreen erabilpena, gaiaren islapenak eta freskotasuna izango dira.



EGITARAUA

Urriak, 2

• **10:00-17:00** Euskal Herriko I. Graffiti Lehiaketaren finala.

• **Graffiti erakusketa**

• **Graffiti tailerrak:** ikusleak graffititaren teknikak ezagutu eta praktikan jartzeko aukera izango du.

- Scratch eta DJ tailerra: musika pintxatu, nahastu eta scratch-ak egiteko teknikak.

- Musika ordenagailu bidez egiteko tailerra

- Perkusio tailerra: Azokako postu onenaren sari banaketa Goñiati pilotalekuan

- Break Dance tailerra: gorputzaren espresioa musika eta dantzaren bidez lantzeko teknikak.

• **17:00 Sari banaketa**

• **17:30 Erakustaldiak:**

- DZ ren musika erakustaldia

- Scratch erakustaldia

- Skate erakustaldia

- Perkusio erakustaldia

- Break dance erakustaldia

• **18:00 M.A.K taldearen kontzertua**

• **18:30** ean Aritz Sound System eta DZ ren musikarekin eta INTXAURBREAK dantza taldearen ikuskizuna.

• **19:00** Seлектah Sound System kontzertua .

• **20:00** Kadun Karama afrikar doinu eta dantzak.

Erretratu zaharra



Filabete honetako erretratu zaharra **Pako Arrizabalagak** laga digu. 1950. urte inguruko argazkia da. Koadrila arteko futbol partiduak jokatzeko ohitura zeukaten, eta sarritan ibiltzen ziren Mutriku, Altzola, Deba edota Itziarko koadrilen kontra. Egun honetan Deban jokatu zuten. Gogora dezagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak:

Zutik, ezkerretik eskumara: **Enrike Zabala**, **Jose Luis Zubiaurre “Usetxe”**, **Santi Zulaika “bakeruanekua”** (†), **Antonio Gurrutxaga**, **Pako Arrizabalaga**, **Jose Zabala** eta **Txomin Juaristi**.

Makurtuta, ezkerretik eskumara: **Txomin Urbieta**, **Manolo Landa**, **Jose Mari Zabala**, **Jabier Urruzola** eta **Agustin Esnaola**.

Lanbroa



**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7tik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8tik aurrera

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Malape taberna
Orain astegunetan



San Frantzisko, 60



Farmazia - okindegia

EGUNEZ

17	Yudego
18	Etxeberria (Santa Ana kalean)
19	Etxeberria (Santa Ana kalean)
20	Fernandez
21	Yudego
22	Zabaleta
23	Etxeberria (Errosario kalean)
24	Ibañez

GAUEZ

Yudego
Etxeberria
Etxeberria
Fernandez
Yudego
Zabaleta
Etxeberria
Ibañez

FARMAZIAK

ESCALA , Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ , Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABALETA , Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
OKINDEGIA 19 igandea Ibarrenea

Eusko Tren

DONOSTIA-BILBO

Egunero			
Donostia AMARA	5.45	06.45...	20.45
Elgoibar	07.02	08.02..	22.02

* jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

MENDARO-ELGOIBAR

Egunero			
Mendaro	07.50	08.50...	21.50

Eusko Tren

AUTOBUSAK

BILBO-DONOSTIA

Egunero			
Bilbo	06.00	7.00...	20.00
Elgoibar	07.23	08.23...	21.23

* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan			
Elgoibar	07.25	08.25	10.25... 21.25
Jaiegunetan			
Elgoibar	08.25	09.25	10.25... 21.25

ELGOIBAR

SIGMA ● ———— ● ARRIAGA

SIGMA - ARRIAGA

8:00	8:10
9:25	9:35
11:10	11:40
11:20	11:50
12:10	12:40
12:20	12:30
13:10	13:20
13:20	13:30
18:20	18:30
19:10	19:20

ARRIAGA - SIGMA

8:10	8:20
9:55	10:05
11:10	11:20
11:40	11:50
12:10	12:20
12:40	12:50
13:10	13:20
18:10	18:20
19:00	19:10

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emailak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gaztetxea	943 74 35 72
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua	
Arreiturre	943 74 80 19
Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	943 74 41 12
El Diario Vasco	943 74 40 73
El Correo Español	943 74 10 82
Zazpiki irratia	943 74 34 74
Egunkaria	943 30 02 28
Gara	943 31 69 99

Iñaki Ansola

SAN ANTOLINEKO JAI BATZORDEKO KIDEA

"San Antolineko auzoak bihar dabana, auzotarrak elkartzeko lokal bat da"

Irailaren 2an San Antolin jaiak ospatu zituzten Arriaga auzoan. 26 urte eta gero San Antolindarrek, jaien ohitura berreskuratu dute aurten, auzotarrak biltzeko eta auzo bizitza indartzeko bide aproposa iruditu baitzaie. Honela, bertso afaria eta gero, trikitilariekin erromeria izan ziren.



■ 1978az geroztik zergatik ez da ospatu jai hau?

Arrazoietako bat gure auzoak biltzeko gunerik ez duela da. San Pedrok frontoia, bolatokixa eta eliza dauzka. Beste hainbeste gertatzen da San Migel edo San Lorentzorekin. San Antolinek ordea, eliza moduko bloke txiki bat baino ez dauka. Lehen, egungo autopistaren azpian eliza eta eskola izandako etxe bat zegoen, zuhaitz mordo batekin. Beranduago, autopista eraiki zuten, industrialdea sortu eta aurrez aipaturiko dena bota egin zuten.

■ Nolakoak ziren zure gurasoek bizi izandako jaiak?

Betidanik entzun izan dot San Antolineko jaiak, Elgoibarko auzoen artean onenak izaten zirela. San Bartolome jaiak bukatu eta San Antolin jaiak hasten ziren eta jende pilo bat ibiltzen omen zen. Besteak beste, herri kirolak eta asto lasterketak egoten ziran, baita musika talde onak ere.

■ Zeintzuk aritu zarete aurtengo San Antolin jaiak antolatzen?

Zerbait antolatzeko ideia, abuztuan sortu zitzaigun. Neu arduratu naiz bertsoari eta trikitilarietaz, karpa muntatzeko jendea biltzeaz...

Muntatze lanetan auzoko jendea ibili da eta lan asko egin dute. Jendea laguntzeko prest egon da. San Pedroko alkateak ere bere laguntza eskaini zidan, eta baita Pagoagak toldoa jartzan ere.

■ Nolako egitaraua prestatu zenuten?

Sustrai Colina eta Jesus Mari Irazurekin bertso afaria eta trikitilarietaz alaituriko erromeria izan genituen. Oso giro ona egon zen. Ni pixka bat kezkatuta egon nintzan, ez nekien dena ondo aterako ote zen, euri asko egiten bazuen karpa azpian nola moldatuko ginen... 120 lagun inguru bildu ginen afarian, bai auzokoak bai elgoibartarrak ere, jende gaztea nahiz heldua.

"Egindakoarekin gustura baina datorren urterako jai gosez geratu gara"



■ Jaien balorazioa?

Ona. Egindakoarekin gustura, baina, jai gosez gelditu gara. Jendea zerbait gehiago egiteko gogoarekin geratu zen datorren urtera begira.

■ San Antolin auzoa ez al dago pixka bat baztertua?

Bai. Agian, txikia delako. San Antolin, bere industrialdeagatik ezagutzen da eta bertako baserri giroa pixka bat galduta dago. San Antolineko auzoak bihar dabana, auzotarrak elkartzeko lokal bat da. Udaletxera lokal bat eskatzera jo izan dugunean, ez dogu erraztasunik eduki. Gu prest gaude Udaletxeari leku ezberdinak proposatu eta adostasun batera iristeko.

■ Zertan oinarritzen da zure lana?

Auzoko ordezkaria naiz, arazoak eta gabeziak agertzen ditut, gauzak azaldu, erabakitzeko ahalmenik ez baitaukat.

■ Elgoibarko alkate bazina, zer da aurreneko egingo zenukeen gauza?

Elgoibartar guztion borondatea errespetatu, inor baztertu gabe, eta baserri gehiago lagundu. Gure auzoari begira, dirulaguntza handiagoak eman. Aipagarria iruditzen zait beste kontu hau: hileroko feria kentzekoak direla. Egia bada, honen aurka nago. Hainbeste urtetan iraun duen ohitura hau, sustatu eta lagundu egin behar da.

Esther Gurrutxaga

Debegesak hainbat ekimenez osatutako Higikortasun Iraunkorraren Aste Europarra antolatu du

Irailaren 16tik 22ra luzatuko da

Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkarteak (Debegesak) Higikortasun Iraunkorraren Aste Europarra antolatu du 'Bizi kalitate hobegoko herri eta hirien alde' lelopean. Ekimen hau osatzen duten ekintzak irailaren 16tik 22ra ospatuko dira eskualdeko hainbat herritan.

Higikortasunaren Astea Mendaron hasiko da bihar, hilak 18 9:30etik 13:30era ospatuko den umeei zuzendutako jaiarekin.

Bigarren ekintza hilaren 26an, domekan, Debarrenan zehar ospatuko den bizikleta itzulia izango da. Ibilaldia Mallabitik aterako da goizeko 9:30ean eta 12:00etarako Mutrikura iritsiko da. Elgoibartik 10:20 aldera pasatuko da. Partaidetza borondatezkoa da eta helmugan doako dutxak eta luntxa eskainiko dira. Nahi dutenek, autobusa izango dute etxera



bueltatzeko, eta baita txirinduak eramango dituen furgoneta bat ere.

Garraio publikoaren kanpaina

Higikortasunaren Astearen bigarren faserako garraio publikoari buruzko kanpaina bat antolatu dute. Irailaren 22an, eguaztenean, Eibarko Udalbus garraio publikoa doan izango da egun osoan zehar.

Egun bertan, 350 'Creditrans' banatuko dira (garraio publikoa erabiltzeko bi euroko deskontua duten bonuak). Bonu hauek Eibarko Ego Gain kalean banatuko dira (Arrate hotelaren alboan), eta Ermuan Bizkaiaiko Etorbidean. Bonuen banaketa ordutegia, goizez 7:30etik 9:00etara izango da, eta 12:00etatik 14:00etara arratsaldez.

Eta azkenik, ekimen berriena garraio publikoko txartelen truke, hondartzako toailen banaketa izango da. Toaila bat lortu nahi dutenek (bakarra pertsonako), irailaren 21ean eta 22an erabilitako garraio publikoko txartelak gorde beharko dituzte (bidaiaren norakoa edo abiapuntua Debarrenako herri bat izan beharko da). Interesatuak irailaren 26an, domekan, Plaza Handian agertu eta txartelen truke toaila eskuratzeko aukera izango dute (12:00etatik 14:00etara).



Elgoibartar bat ETB1eko "Basetxea K" saioan

Itziar Irureta elgoibartarra ETB1eko "Basetxea K" lehiaketan parte hartzeko aukeratua izan da. "Kasting"era aurkeztu ostean aukeratu dute Itziar eta datorren astetik aurrera Basetxean nola moldatzen den ikusteko aukera izango dugu telebistaz. Baserrri zahar batean eta basoan, urik eta elektrizitaterik gabe, biziko dira 12 pertsona Julian Iantzik aurkeztuko duen saioan. Bosgarrenez egingo dute Basetxea programa eta oraingoan XX. mendearen

hasieran bezala bizi beharko dute lehiakideek. Bizkaiko mendebaldean, Karrantza Haraneko inguru galdu batean biziko dira bi taldetan banatuta.

Itziarrek baldintza gogorreko bizimodua gainditzeko gai dela frogatu beharko du eta baita elkarbizitzan ondo moldatzen dela ere. Hiru lehiakide bakarrik iritsiko dira finalera, eta hauek izango dute saria irabazteko aukera. Zortetik onena opa diogu Itziarri eta ia noraino iristen den.

VI. URTEURRENA

1998ko irailaren 22an, 70 urte zituela hil zen **RAFAEL PEREZ HERMETXEO**ren oroimenez **URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian larunbata, hilak 25, arratsaldeko 19:00etan. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Jaime Martinezek Espainiako arku tiraketa txapelketan parte hartuko du asteburu honetan Matarón

Euskadiko Txapelketa irabazi zuen joan zen abuztuan

Jaime Martinez egungo Euskadiko Arku Tiraketa txapelduna da, basoko ibilbide modalitatean. Legutianon (Araba) jokatu zen txapelketan lortu zuen txapela elgoibartarrak abuztuan. Asteburu honetan, berriz, Matarón (Katalunia) jokatu den Espainiako Arku Tiraketa Txapelketan parte hartuko du. Banaka eta Euskadiko taldeko kide gisa arituko da. Estatu Batuetan sortu zen kirol honen muina basoan zehar jarrita dauden animalia itxurako dianetan ahalik eta puntu gehien lortzea da. Erbi, orein, basurde, otso eta beste hainbat gezurrezko animali tirokatu behar dira geziakin eta puntuazioa altuagoa lortzen da birrikak edo bihotza moduko organoetan emanez gero. Martinezen hitzetan,



“benetako ehizaren simulakro modukoa da. Basoan zehar jarrita dauden 20 pieza tirokatu behar dira bakoitzari bi gezi botaz”. 35 lagunek parte hartu zuten txapelketan eta Martinez izan zen erregulartasunik

handiena erakutsi zuena, 191 punturekin. Amadeo Diaz beasaindarra sailkatu zen 2. postuan 189 punturekin eta Jose Luis Garcia zumaiarra izan zen 3. 186 punturekin. Lehen hiru sailkatuak Ordiziako Arku Tiraketa taldeko kideak izan ziren. Martinezek azaldu digenez duela urtebete sartu zen taldean eta astean behin joaten da Ordiziara entrenatzera. Txapelketa irabaztea, berriz, ezusteko handia izan dela aitortu digu, “bost edo sei arkulari ziren faboritoak eta ni eguna pasatzera joan nintzan, inolako presiorik gabe, eta horrek mesede egin zidan. Goizeko 8:30ean ateratzen ibilbidea egitera eta 12:30ean bukatu nabanian puntu asko lortu nituela jakin arren, ez nekien irabazlea nintzenik lagunek esan zidaten arte”.

Aixako zulora irteera Leizarpe Espeleologi Taldearekin



Leizarpe Espeleologi Taldeak Udalaren laguntzarekin Aixako zulora irteera antolatu du irailaren 25ean, zapatuan. Leizarpek Santa Klaran duen lokaletik abiatuko dira goizeko 10:00etan. Espeleologiaren mundua Elgoibarko gazteei erakustea da irteera honen helburu nagusienetakoa eta honekin batera lurpeko paisaia ikusgarriak ezagutzea. Kobazulo honek 10 kilometro baino gehiago ditu ezagunak eta egitea aurreikusi duten

ibilbidean lurrazpiko munduan ohikoak diren hainbat gauza ikusiko dituzte: leize sakonak, zirrikitu estuak, estalaktitak, areto ikusgarriak, e.a. Irteeran parte hartzeko ezinbestekoa da 14 urtetik gorakoa izatea. Eraman beharreko materiala: frontala, bazkaria eta aldatzeko jantziak. Izen-ematea, berriz, irailaren 21a baino lehen egin beharko da elkartearen lokalean Santa Klaran duen lokalean edo honako telefonotara deituz: 666 537 088 edo 650 012 400.

IMAR

ERREFORMAK

- Barruko ateak eta blindatuak
- Tarima eta parket flotatzaileak
- Armairu landatuak
- Sukalde eta etxetresna elektrikoak

*Eskata aurrekontuak
konpromisorik gabe!*

Tel.-Faxa: 943 53 14 71
EIBAR

Mobilak: 609 054 978
646 905 564

nipes
umeentzako jantziak

Punta puntako markak

Santa Ana, 12 • Tel.: 943 74 04 07

DKNY
KENZO
TIMBERLAND
ELLE
IKKS
NOLITA

29.000 erabiltzailetik gora izan ditu Mintxetako igerilekuak

Uztailaren 16an, 1.242 lagun bertaratu ziren igerilekura


Mintxetako aire libreko igerilekuek joan zen irailaren 12an, domekan, esan zioten agur bainu-denboraldiari. Aurtengo denboraldiak orain arteko markak hautsi ditu, eta 29.129 pertsonak erabili dute igerilekua ekainaren erdialdean denboraldia martxan jarri zenetik. Iazko zifrak txiki laga ditu aurtengoak, iaz 16.000 izan baitziren erabiltzaileak, aurtun baino 13.000 erabiltzaile gutxiago, alegia. Udal Kirol Patronatuko arduradunek emandako datuen arabera, egunik jendetsuena uztailaren 16a, barixakua,

izan zen. Egun hartan 1.242 pertsona bertaratu ziren Mintxetako igerilekuetara bero sargoriari aurre egiteko.

Hilabeteotan, eibartar ugari bertaratu da Mintxetako igerilekuetara, Ipuruako igerilekuak konpontzen jardun duten bitartean, dohainik erabili ahal izan baitituzte instalazio horiek. Pentsa genezake, hori izan dela erabiltzaileen kopurua igotzeko arrazoiatariko bat. Bestalde, uda honetan jasotako datuei kasu eginez gero, Mintxetako igerilekuak gure bailarako herritarren aisialdirako toki apropos bihurtu direla esan liteke.



Orio eta Zarautzeko kilometroetara oinez Morkaikorekin



Orion eta Zarautzen ospatuko da Kilometroak 2004, Ikastolen aldeko jaiak, urriaren 3an, domekan. Morkaiko Mendizale Elkartek bertaraino oinez joateko irteera antolatu du.

Goizeko 6:30ean izango da irteera ordua Plaza Handian. Handik Azkaraterantz abiatuko dira mendizaleak, Aittolatik pasa ostean Zestoa eta Aizarnazabaleraino iritsiz. Urdanetarantz abiatuko dira gero, eta Pagoetatik beherantz eginez Oriora iritsiko dira azkenik. Gutxi gorabehera eguerdiko 14:00etan ailegatuko direla Oriora espero dute Morkaikokoen, bidean pare bat atsedenaldi eginez.

Ibilbide luzea eta gogortsua dela adierazi digute, baina oso polita aldi

berean. Itzulera trenez izango da edo bakoitzak bere kontura egin dezake. Irteera honetan parte hartzeko ez da izenik eman beharrik izango, nahi duenak Plaza handian agertu besterik ez du.

Hurrengo urteko irteerak

Bestalde, datorren urteko irteeren egutegia prestatzen hasiak dira Morkaiko Mendizale Elkartekoak. Bazkide eta herritarrek irteerak proposatzeko aukera izango dute eta aukeratuak izanez gero, proposatutako irteerara doan joateko eskubidea izango dute. Proposamenak Errosario kaleko egoitzara eraman daitezke astelehen eta eguenetan edo morkaiko@morkaiko.euskalnet.net e-postara idatziz.



**CORDON
VILARCHAO**

San Roke, 7 beheak
Pol. Glase - Glasage kalea, 18 - 25 eta 26 modalean
Tel. 943 740 578

DEKORAZIOA

Karpo eta barniko estaliturak
Zaluen kolokazioa
Lakatuak: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra





MEKANOSA

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



Langai
Euskal Lan Zerbitzua

Azkoitiko enpresak **galdaragilea** behar du. **Erref. 162004007226**

Eibarko enpresak **mekanikoa** behar du. **Erref. 162004005983**

Gipuzkoako enpresak **ingeles irakaslea** behar du. **Erref. 162004007561**

Elgoibarko enpresak **proiektu zuzendaria** behar du. **Erref. 162004007364**

Gipuzkoako enpresak **elektrikaria** behar du. **Erref. 162004007408**

Zarauzko enpresak komertziala behar du. **Erref. 162004007190**

Getariko enpresak **sukalderako laguntzailea** behar du. **Erref. 162004005736**

Gipuzkoako enpresak **torneurako langilea** behar du.

Erref. 162004007495

Gipuzkoako enpresak **promotorea** behar du. **Erref. 162004007276**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

Lana

ESKAERA

◆ Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusi edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **699 60 91 90**

◆ Emakumea nagusi edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **610 69 95 32**

◆ Administrataria eskaintzen da. Ez dago kontratu beharrik. ☎ **627 831 529**

◆ Pertsona arduratsua egun erdiz lan egiteko prest. ☎ **678 070 546**

◆ Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusi edo haurrak zaintzeko prest. Goizeko 10:30etik 17:30era eta asteburuetan. ☎ **699 60 91 90**

Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusi edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **943 75 24 31/600 89 06 41**

◆ Gizona eraikuntzan, pinturan edo beste edozertan lan egiteko prest. ☎ **610 69 95 32**

◆ Emakumea etxeak, tabernak edota elkarateak garbitzeko prest. ☎ **639 88 20 04**

◆ Gizona eraikuntzan, pinturan edo beste edozertan lan egiteko prest. ☎ **662 078 352**

ESKAINITZA

◆ Ile apaindegirako langilea behar da, aldi baterako. Pelukeria ezagutzen duena. ☎ **615 10 57 72/615 70 33 97**

◆ Elgoibarko jatetxeak sukaldaria eta kamareroak behar ditu. ☎ **943 74 12 30**

◆ Kamareroa behar da. ☎ **943 74 10 12**

◆ Kamareroa behar da. ☎ **943 030 150**

◆ Mutila behar da asteburuetan tabernan lan egiteko. ☎ **670 65 49 21**

◆ Asteburuetarako sukaldaria behar da. ☎ **670 25 04 29**

◆ Ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da. ☎ **680 669 137**

◆ Kamareroa behar da astean zehar lan egiteko. ☎ **652 77 82 10 / 652 77 82 60**

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Etxebizitzak

◆ Etxea salgai. 3 logela, altzariekin, zaharberritua. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. ☎ **661 42 60 77**

◆ Pisu ekonomikoa hartuko genuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **699 60 91 90**

◆ Etxea salgai Mendaron. 3 logela, zaharberritua, altzariekin. Sukalde-egongela, trastero handia, berogailu zentrala. Dena kanpora begira. ☎ **609 96 53 95/650 129 605**

◆ Etxea salgai Errosario kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **699 179 872/943 74 02 68**

◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**

◆ Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. ☎ **627 603 437**

◆ Etxea osatzeko pertsona bat behar da. ☎ **615 76 72 44**

◆ Pisu salgai Eibarren. Karmen kalean, igogailuarekin. ☎ **615 71 99 01 (Angelita)**

◆ Pisu salgai Mendaron. Berria. Garaje eta trasteroarekin. Prezioa adosteko. ☎ **696 305 317/943 74 15 21**

◆ Pisu salgai Mendaron. Berria. Altzariekin. 3 logela, sukalde-jangela, komuna eta trastero handia. ☎ **609 96 53 95/650 12 96 05**

◆ Pisu alokatzen da Deban irailetik ekainera. ☎ **943 74 13 39**

◆ Etxea salgai Pedro Muguruzan. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, trasteroa. Aukeran garajea trastero handiarekin. ☎ **943 74 41 85**

◆ Pisu salgai. Bi logela. Altzariekin. 75m² erabilgarriak. ☎ **678 627 397**

◆ Logela bat alokatzen da Sigman. ☎ **659 62 73 56**

◆ Logela bat alokatzen da. ☎ **943 74 18 81**

Salerosketak

◆ Opel Kadet 1.400 salgai. Ekonomikoa. Egoera onean.

☎ **943 74 11 30**

◆ Mercedes 190 25D salgai. Aire egokitua. Egoera onean. Merkea. 175.000km. ☎ **690 03 57 50**

◆ Opel Corsa autoa salgai. SS-AH. Egoera onean. 1.350 euro. ☎ **943 74 21 84**

◆ Errepiderako bizikleta salgai. Cannondale ALU 2.8 . 48-50 neurrikoa. Egoera onean. ☎ **943 19 25 71 (Moises)**

◆ Motorra salgai. Special 250. Margotu berria. 4 urte. 1.700 euro. ☎ **665 70 13 70 (Eli)**

Partikularrak

◆ Portuges klase partikularrak hartuko nituzke hizkuntza trukaketa egingo nuke. ☎ **635 20 37 18**

◆ Ingeleseko klase partikularrak ematen dira, goizez eta arratsaldez. 13 urteko esperientzia. Maila guztiak. ☎ **653 72 28 11/943 74 31 67**

Garajeak

◆ Garaje plaza komunitarioa alokatzen da San Roken, Aterpe inguruan. ☎ **653 73 94 67/943 74 33 90**

◆ Garajea alokatzen da Ikastola ondoan. ☎ **943 53 16 48**

◆ Urasandin 27m²ko garaje itxia salgai. ☎ **659 14 12 32**

◆ Madalako etxe berrien azpian garajea eta trasteroa alokatzen dira. ☎ **605 77 34 53 (21:00etatik aurrera)**

Bestelakoak

◆ Hamster bat oparitzen da. ☎ **943 74 33 59 (Iosu)**

Lokalak

◆ Lokala alokatzen da San Bartolome kalean. Ez du obra beharrik. ☎ **667 94 24 33 (gauzez)**

Agurrak

♦ Zorionak **Itsaso Garitagoitiari**, hilaren 19an, 17 urte egingo dituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Yaiza** zure 3. urtebetetzean. Gurasoen eta Yerayren partez.



♦ Zorionak **Nora**, abuztuaren 28an 3 urte handi egin zenituelako. Muxu handi bat Elsaren partez.



♦ Zorionak **Anari**, hilaren 14an, 7 urte bete zenituelako. Ama, Aitor eta familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Nekane**, irailaren 16an zure eguna izan zelako. Oihane eta Mikelen partez.



♦ Zorionak **Irati Egaña**, gaur bi urte egin dituzulako. Etxeko txikienari muxu handi bat familiakoek eta bereziki, ahizpa Alaitzen partez.



♦ Zorionak **Yolanda Nietori**, hilaren 16an, 28 urte egin zituelako. Familiakoek partez.



♦ Kaixo **potota!** Gelako txikiena eta urtebetetxoa bete duzu! Zorionak Ikastolako laguntxoek partez.



♦ **Ondarruko famatuena** zorionak, bihar 6 urte beteko dituzulako. Elgoibarko lehengusuen partez.



♦ Zorionak **Hasier**, irailaren 18an 3 urte egingo dituzulako. Familiakoek eta lagunak partez.



♦ Zorionak **bikote** zuen urtebetetzean. Muxu pilo bat guztion eta bereziki, Oihaneren partez.



♦ Kaixo **bikote!** Abuztuan urte bat bete duzue eta BARREN-ekoak oporretan! Zorionak Ikastolako laguntxoek partez.



♦ Zorionak **Aitor eta Idoia!** Azkenean iritsi da zuen eguna bikote! Lasai hartu gauzak eta topera gozatu lagunartean. Onena opa dizuegu. Etxekoak.



♦ Zorionak **bikote!** Oso ondo pasa dezazuela zuen den egun horretan, eta ez dadila txanpanik falta! Koadrilakoek partez.

BEKAK

Lankidetzak beka

Eusko Jaurlaritzak 2004/2005 ikasturteko lankidetzak-beketarako deia egin du. Beka hauek, espediente akademiko ona dutela frogatu dezaketenean, ikasleei zuzenduta daude, unibertsitateko ikasketekin bateragarritasun-erregimenpean lankidetzan jardun nahi badute unibertsitateko ikastetxeetan. Beka bakoitzaren zenbatekoa: 2.460 euro. Informazio gehiagorako: www1.hezkuntza.ej-gv.net. Epea: irailak 30

Ikerketa

Eibarko Udalak literaturari eta kazetaritzari buruzko ikerketarako buruzteko Juan San Martin bekarako deialdia egin du. Deialdian parte hartu nahi duten norbanakoek nahiz taldeek, burutu nahi duten lanaren proiektua aurkeztu beharko dute, 30 lerroko aurkezpenarekin batera. Irabazleak 9.000 euro jasoko ditu eta 12 hilabeteko epea izango du lana amaitu eta entregatzeko. Epea: urriak 10

IKASTAROKAK

Argazkia

Gipuzkoako Argazkilarik Elkarteak 2004ko urriaren 4tik abenduaren 15era bitartean iraungo duen argazki ikastaroa antolatu du Donostian. Argazkilaritzari buruzko hastapen-ikastaroa izango da, baina sormenari, alderdi artistikoari eta argazkiari ikuspegi pertsonala emateko moduari ere ekingo zaio. Klaseak astelehen eta asteazkenetan, 19:30etik 21:00etara izango dira. Epea: plazak agortu arte

Elkartasuneko tailerra

Intered Euskal Herria erakundeak "elkartasuna eta kooperazioko jokoak" izeneko tailerra antolatu du irailak 25 eta 26ko asteburuan Donostian. Ordutegia: irailak 25 zapatua 10etatik 14etara eta 15:30etik 19:30era, eta igandea 26 10etatik 14etara. Epea: irailak 23

LEHIAKETAK

Oporretako argazkiak

Ermuko Torreta Etxeak "2004ko oporrak" argazki lehiaketa antolatu du. Bertan, 15 eta 30 urte bitarteko gazteek har dezakete parte, munduan zehar eginiko edozein bidaiatan ateratako kolorezko argazkiak aurkeztuz. Epea: urriak 8

LANA

Musika eta dantza irakasleak

Donostiako Musika eta Dantza Udala Eskolak, musika eta dantza ikasleentzako ordezkapenak egiteko zerrenda osatzeko deialdia egin du espezialitate guztietarako. Baldintzak: irakatsi nahi den espezialitateko erdi mailako titulua. Epea: irailak 20

18 ZAPATUA

**11:00 ELGOIBARKO TXANKAKUA
MERKATARI ETA ZERBITZU
ELKARTEAREN IV. FERIA**
Plaza Handian

19 DOMEKIA

**12:30 ELGOIBARKO UDAL MUSIKA
BANDAREN KONTZERTUA**
Herriko Antzokian



24 BARIXAKUA

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA
3-8 bitarteko haur eta gurasoei zuzendua
Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.



**18:30 AIASTIA AUZOKO JAIEN
HASIERA (GAZTEEN EGUNA)**
Kanpai jotzea auzotarrei jaien hasiera
iragarritz

19:00 POTEOA BIZIKLETAN

21:30 GAZTE AFARIA

0:00 DISKO FESTA
Goizaldera "Striptease"

IKASTAROAK

Altzariak zaharberritzea

Eskuz elkarrekin altzariak zaharberritu eta margotzeko ikastaroa eskainiko du urriaren 5etik aurrera. Klaseak martitzenetan eta eguenetan izango dira 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko edo informazio gehiago nahi izanez gero, honako telefonora hots egin: 943 74 08 01 (Merche).

Barreterapia

Irailaren 19an, domekan, hasiko dira berriz barreterapia ikastaroak Aubixa baserrian. Ikastaroaren ordutegia 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara izango da. Barrearen onurak eta udazkena umore hobez hasteko hainbat aholku eta ariketa praktikoko egingo dituzte. Besteak beste, estresa, depresioa eta digestio arazoetarako konponbideetako bat izan daiteke barre gitea.

HITZALDIAK

Haritz EDT Lasturren

Gaur egungo gizarteak sorrarazten dituen gaitzak (depresio, desoreka, etab.) eta hauei nola aurre egin izango dira hiru adituk eskainiko duten hitzaldiko gaiak. Irailaren 25ean, zapatuan, izango da hitzaldia Aubixa baserrian. Hizlariak, Karlos Goena, psikiatra, Ana Sousa, psikologoa, eta Maria Jesus Arrieta, Mungiako Institutuko ESoko irakaslea izango dira.

ZINE
kluba



"Memories of Murder"

Hego Korea
Zuzendaria: Bong Joon-Ho
Sariak: Zuzendari Onenaren Zilarrezko Maskorra eta Zuzendari Berri Onena (Donostiako Zinemaldia 2003).

"The Station Agent"

AEB -Zuzendaria: Thomas McCarthy
Sariak: Epaimahaiaren Sari Nagusia (Donostiako Zinemaldia 2004).



KONTZERTUAK

Udal Musika Banda

Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du datorren domekan, irailaren 19an Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean honako pieza hauek joko dituzte: "Xabia" (S. Salva), "Escena y gran marcha de la opera Aida" (J. Verdi), "The best of Mancini" (H. Mancini), "Danzas fantasticas" (J. Turina) eta "Bands around the world" (P. Yoder). Kontzertua eguerdiko 12:30ean hasiko da.

MATRIKULAZIOAK

Matrikula zabalik AEK euskaltegian

Aurten ere, eta "Euskararen piper eta gatza" lemapean AEK euskaltegiak zabalik dauka datorren ikasturterako matrikulazioa. Euskalduntze, alfabetatze, euskalduntzearen 1. eta 2. mailari dagozkien gaitasun agiriak, Osakidetza, irakaskuntza eta administrazioko Hizkuntza Eskakizunak eta EGA daude ikastaroen eskaintzen barruan. Udalaren laguntzaz, gurasoek, langabetuek eta ikasleek matrikula erdia ordainduko dute eta Udalak jarritako baldintzak betez gero, beka lortzeko, aukera ere badago. Eskolak, goizez, arratsaldez eta gauz izango dira eta izena emateko azken eguna, irailaren 28an izango da. Argibide gehiago nahi izanez gero, jo Plaza Txikian dagoen AEK euskaltegira edo deitu 943 74 13 32 telefonora.

IKASTETXEA

Mekanizazio graduatuondokoa IMHn

Ingeniaritza tituludunentzat Mekanizazio graduatuondokoa urrian hasiko da IMHn. CNC edo ohiko makinak erabiltzeko 120 ordu praktiko burutuko dira. 3. urtez Makina Erremintaren Institutuak Mekanizazio graduatuondokoa martxan jarriko du urriaren 4tik, azaroaren 9ra arte. Goi Mailako Ingeniaritza edo Ingeniaritza Teknikoa ikasi dutenei zuzendua dago eta 120 orduz, goizez, 8:30etatik 13:30ak arte, 4 modulu egingo dituzte: ohiko fresatzeko makina eta tornuen mekanizazioa (1-2 moduluak) eta CNC tornu eta fresatzeko makinaren programazioa eta gauzatzea (3-4 moduluak). Informazio gehiago 943748270 telefonoan (Nora Ramon) edo www.imh.es gunean.

DANTZA

Haritz EDT Lasturren

Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari Taldeak dantza saioa eskainiko du zapatu honetan, hilaren 18an, Lasturren. Dantza saioa Lasturko jaien egitarauko ekintza bat gehiago izango da.

OSPAKIZUNAK

42ko kintoak

Aurreko urteetan egin izan duten legez, 1942an jaiotako elgoibartarrek anaiarteko bazkaria ospatuko dute urriaren 23an, Sigma jatetxean, 14:30ean. Interesatu guztiek Euskadiko Kutxa/Caja Laboralean eman behar dute izena honako kontuan 35 euro sartzarekin batera: 007 1 03235 5. Urriaren 20a izango da dirua sartzeko azken eguna.



ELGOIBAR, Herriko Antzokian "Harry Potter y el prisionero de Azkaban"

17, barixakua: 22:15
18, zapatua: 19:30-22:15
19, domekia: 16:30-19:30-22:15
20, astelehena: 22:15
"Memories of murder" (Z.K.)
21, eguena: 22:15
23, barixakua: 22:15
"The Station Agent" (Z.K.)
22, eguaztena: 22:15
24, barixakua: 22:15

EIBAR, Unzaga

"El mito Bourne"

17, barixakua: 19:30-22:15
18, zapatua: 17:00-19:30-22:30
19, domekia: 17:00-19:30-22:30
20, astelehena: 19:30-22:15
21, martitzena: 19:30-22:15
22, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto

"La vecina de al lado"

17, barixakua: 22:15
18, zapatua: 22:30
19, domekia: 22:30
"Garfield"
17, barixakua: 19:30
18, zapatua: 17:30-19:30
19, domekia: 17:30-19:30

BARRENez ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



"Harry Potter y el prisionero de Azkaban"

Zuzendaria: Alfonso Cuarón.

Antzezleak: Daniel Radcliffe, Emma Watson, Rupert Grint.

Harry Potter (Daniel Radcliffe) eta bere lagunak Hogwarts ikastetxera itzuli dira, hirugarren ikasturtea hastear baitago. Hasieratik izango dituzte arazoak, ordea, Sirius Black (Gary Oldman) mago arriskutsuak preso zegoen kartzelatik ihes egitea lortu baitu. Lord Voldemorten adiskidea da Sirius Black, eta bere laguntza eskatuko dio mendeku gosea asetzeko eta Harry Potter garaitzeko. Aldi berean Harry Potterrek bere iraganari buruzko ezusteko gehiago ezagutuko ditu.

ZINEA

Oharra

Erretratu zaharrak behar ditugu. Zuen etxeetan aspaldiko erretraturik baldin baduzue, mesedez deitu BARREnera 943 74 41 12.



A

ste honetako erretratu zaharra **Manolo Unzilla** lehen mailako futbolari ohiak laga digu. Argazki hau Manolo berak Kaliforniara egin zuen bidaian ateratakoa da. Hilabete inguru pasatu zuen bertan, eta paraje ugari bisitatu zituen. Erretratu hau Josemite-El Capitan eskalada horma famatuaren aurrean aterata dago. Mundu guztiko, eta Euskal Herriko eskalatzaila onenak joaten dira bertara, eta esaten dutenez, oso zaila da mendi gailurrera iristea. Ingurune honetan bailara ederrak eta Josemite bera baino mendi altuagoak ere ikus daitezke. Bidaia Los Angelesen hasi zuen bere emaztearekin, bertan ikasketak egiten ari zen semea bisitatu zuten, gero Las Vegas, San Frantzisko... oso ondo pasatu zutela esan digute. Argazkian, **Manolo Unzilla** eta bere emaztea **Margarita Aranberri** ageri dira.



ESKERTZA

2004ko abuztuaren 9an, 48 urte zituela hil zen,
MIGUEL ANGEL BRAGADO MAGAZen sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2004ko irailaren 5ean, 84 urte zituela hil zen
MIGUEL UBIRIA ELORZAen emazteak,
alabak, bilobak eta gainerako sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



EUSKARA IKASTAROAK



**EUSKARAREN
PIPER ETA
GATZA**

Langabetu, guraso
eta ikasleek
matrikula erdia,
+
beka sistema
(udalaren laguntzaz)

- Maila guztiak
- Perfilak (Osakidetza, irakaskuntza eta administrazioa)
- EGA
- Atzerritarrentzat ikastaro bereziak
- Euskalduntzearen
1. eta 2. mailari dagozkien gaitasun agiriak

Izena eman irailaren 28a aurretik



"Guk euskaraz, zuk zergatik ez?"
(Mertxe eta Patxi)



Matriculate en
aek Euskaltegia

Plaza Txikia, 3 • Tel.: 943 74 13 32
elgoibar@aeknet.net



TXANKAKUA
**ELGOIBARKO MERKATARI ETA
ZERBITZU ELKARTEA**



Elgoibarren, 2004ko irailaren 18an
ELGOIBARKO FORUEN PLAZA

TXANKAKUAREN IV. FERIA

• **TXANKAKUAREN IV. FERIA.** Elgoibarko Txankakua Merkatari eta Zerbitzu Elkarteko produktu/zerbitzuen erakusketa eta salmenta.

11:00etatik 14:00etara.

• **Haurrentzako parkeak.**

Ludoteka, gaztelu ertain puzgarria eta txirristada.

• **TXU-TXU trenak.**

Ibilaldiak Elgoibarko kaleetan zehar.

• **TXANKAKUAren VISA TXARTELAren aurkezpena**

12:00etan

• **"Gorriti"ren animaliak.**

Poniak, bigantxak, basurdeak eta hezitako oilarrak.

13:30ean

• **300 euro saritan.**

60 euro-ko 5 sari zozketatuko dira, eta sariak eresketa-txekeak izango dira.

Babesleak:



Eusko Jaurlaritza
Industria, Merkataritza
eta Turismo Saila



**Elgoibarko
Udala**



ELGOIBARKO AIASTIA (SAN MIGEL) AUZOAN

2004ko JAIK

IRAILAK, 24 - Ostirala "GAZTEEN EGUNA"

18:30 Kanpai jotzea auzotarrei jaien hasiera adieraziz.

19:00 POTEOA BIZIKLETAN

21:30 GAZTE AFARIA

24:00 DISKO FESTA

Goizaldera "STRIPTEASE"

IRAILAK, 25 - Larunbata

17:00 ARTZAI TXAKUR TXAPELKETA

Partaideak:

- Mikel Aizpurua (Gipuzkoa) Beti txakurrarekin
- Jose Ramon Orbegozo (Gipuzkoa) Alai txakurrarekin
- Peio Pagadizabal (Gipuzkoa) Txuti txakurrarekin
- Peio Pagadizabal (Gipuzkoa) Alai txakurrarekin
- Felix Irigoien (Nafarroa) Satur txakurrarekin
- Carlos Pinedo (Araba) Xuster txakurrarekin
- Carlos Pinedo (Araba) Txiki txakurrarekin
- Bizkaiko txapelduna
- Bizkaiko txapeldunordea

22:30 HARITZ DANTZA TALDEAREN erakustaldia
Ondoren, ERROMERIA LUHARTZ TALDEAREKIN

01:00ak aldera BOLO TXAPELKETA

Sariak: 1. saria: Motoserra
2. saria: 70 euro
3. saria: 50 euro
4. saria: 25 euro
5. saria: 15 euro
6. saria: Sorpresa
Auzoko lehenengoarentzat garaikurra.

IRAILAK, 26 - Igandea

11:00 MEZA NAGUSIA

Ondoren, BALTZOLA ANAIK trikitilariak

17:00 IDI DEMAK

GARRO (Etxebarria)

LOPATEGI (Billela)

ERLETE (Arrua)

Sariak: 1. saria: 750 euro eta garaikurra eta mantak
2. saria: 660 euro eta garaikurra eta mantak
3. saria: 600 euro eta garaikurra eta mantak

IRAILAK, 29 - Asteaskena

11:00 MEZA NAGUSIA

Ondoren, ZIARDA eta MAÑU bertsolariak.

13:00 Auzoko bikoteen arteko XIX. Pelota Txapelketaren azken partidua.

GARDOKI trikitilariak

20:30 AUZOTARREN AFARIA

Ondoren, ERROMERIA GARDOKI taldearekin.



Oharra:

Aparkalekua egongo da. Antolatzaileak ez dira gerta daitezkeen ezbeharretaz arduratuko.



Laguntzailea
Elgoibarko
udala